

## **AUTOEBALUAZIORAKO GALDERAK**

1. Zeintzuk dira proteina-gomendioak sindrome nefrotikoan eta giltzurruneko gutxiegitasunean?
2. Izendatu sindrome nefrotikoan aurki daitezkeen 3 seinale kliniko garrantzitsuak.
3. Nola tratatzen dira sindrome nefrotikoan lipido metabolismoaren aztoratzeak? Eta giltzurruneko gutxiegitasunean?
4. Likidoen ingestioari buruzko gomendioak baliagarriak al dira sindrome nefrotikoaren tratamenduan? Eta gutxiegitasunean? Noiz gomendatzen da dieta lehorra?
5. Zein izango litzateke zure gomendioa energia-kopuruari dagokionez sindrome nefrotikoa eta obesitatea daukan paziente batentzat? Eta sindrome nefrotikoaren ordeztutako gutxiegitasuna balu?
6. Zein da fosforo, potasio eta C bitaminaren gomendioa gutxiegitasunean? Eta K bitaminarena?
7. Zeintzuk dira hemodialisiarekin tratatzen den pazientearen tratamendu dietetikoan hartu beharreko neurri garrantzitsuenak? Eta dialisi peritonalean. Izendatu ezberdintasun inportanteenak.